

antza, euriak amaitzean, aate basati saldoak ; ur-txoriak be antxe erron oi dabez arrautzak, ertze-ko itza zarratuan ; bai ta buztan-zutak be, antxe itxi daroez euren oin-lorrazak basa garbi-bigunean ; antxe, illun-abarrean, olatu gaiñez ibiltera dei dagio samur illargi-izpiari lore zurizko kukuts-dun bedar jagiak...

Ama, bardin ba'dautzu, nik, andi egitean, enada orren ontzikari izan nai neuke.

Orduan, bai, milla bider gitxienez, igaroko naz ertz batetik bestera, ta uretan dabiltzan auzoko neska-mutikoak arrimen andiz begiratuko daustie. Eguzkia ortzean gorenengo gangan legoke-nean, eta goiza eguerdira eldu, zoli-zoli etorriko niaitzu pizkaten, eta au esan ; "Ama, emoidazu zerbait jateko I" Arrastian, sartaldea itzali ondoan, gerizak zugatzpean kukutzean, itzuliko naz ni illun-min. Eta ez naz geiago zugandik iñoiz al-denduko, ezta, nire aita lez, urira lanean joateko be.

Ama, bardin ba'dautzu, nik, andi egitean, enada orren ontzikari izan nai neuke.

LORAEN IKASTOLA

Bagillean, curia zaparradaka ta odei baltzak marru-otsez zeru zear dabiltzanean, eta sortaldeko aizea, basamortuan bustita, banbu-adar ar-

tean txirula jotera datorrenean, bertatiko iskanbillez agertzen dira lorak, nundik jakin ez; eta gero, dantzaka asten yatzuz, bedar gaiñean, poz-dardar ta zorozka.

—Amatxo: lorak, nik uste, lurpeko ikastolaren batera joango dira, ezta alan? An, atea itxirik, ikasgaiak ikasiko dituez. Eta ordua baifio len jolasketara urten nai ba'leukie, euren irakasle andereñoak bazter baten ipiñiko ditu belauniko. Baiña, euriak datozanean, areik bai jai-egon ederra !

Ara, karrask-ots bizian dabiltz adarrak zugaztian ; ostoak murmur dagie aize zoroak astinduta ; trumoi-odeiak txaloka diardue euren esku zakarrak gora ta beera... Lora neskatillak, barriz, landara doiaz arin, gorri ta ori ta zuri jantzirik...

—Entzuizu, ama : lorak zeruan eukiko dabe euren etxea, izarrakaz, ezta alan ? Begira, bestela, arein gora-nai leiatsua ! Eta zuk ezetz jakin, zergaitik doiazan ain bizkor ! Nik bai, ba-dakit ! Besuak nori luzatzen dautsiezan be bai, ba-dakit nik. Lorak be ama bat daukie, nik zu zaukadan lez.

MERKATARIA

Egizu, ama, ni errialde ez-ezagunetan zear noi-ala ta zu etxean geratzen zareala bakar-bakarrik. Irudiz baiño ezta be, koskondu egizu nire itxas-ontzia, goraiño gauzaz beteta, nasan (portuan) zain